

## KALORIAK

2017ko abenduaren 7a. Egun berri bat, kaloriaz betetako egun berri bat, nire gorputzean sartu nahian, suntsitzeko eta pinotxok irensten duen balearen itxura emateko. Ohetik altxatzen saiatzen naiz, dena pisatzen nau, nire gorputza handia sentitzen dut. Oraintxe bertan 42 kilo pisatzen ditut. 42 kilo depresio eta gantz, nahiz eta gurasoek behin eta berriz esaten duten edozein unetan haizeak hosto bat banintz bezala eramango nauela. Barkatu, ama, barkatu aita, baina nahiago nuke orri bat bezain gutxi pisatuko banu. Gorputzak pisatzen nau, baina nire bizkar eskeletikoan daramadan motxilak askoz ere pisu handiagoa du. Ez pentsa gurasoei gezurra esatea eta bere buruarekin jolastea erraza denik. Beno gezurra da, oso erraza da eta disfrutatzen dut, kontrola daramadala sentiarazten dit.

Goizero bezala, sukaldera joaten naiz, gurasoen egun onak eta amonaren "nire neskatila hau argalduta dago" itxaroten didatenera. Mahaian eseri, begirada jaso, eta nire etsairik handienak ikusten ditut, kaloria. zorrotzak jarrita, 658 kaloria daude: 225 kaloria esnea txokolatearekin, 160 kaloria zereal txigortuak, 93 kaloria gurina, 140 kaloria azukrez betetako laranja zukua eta 40 kaloria marrubi marmelada (azukrerik eta koiperik gabeko marmelada erosketan saskian sartzea lortu nuen). Ahoa irekitzen dut amaren begiradapean, platerean dagoena jaten saiatzeko, ez dut beste ihesbiderik. Gorputzak negar egiten dit barrutik, buruak "potolo" oihukatzen dit eta eskuek dardara egiten didate 10 kaloria baino gehiago duen zerbait hartzeaz, azkenean nire dietak ez lituzke 500 kaloria pasa behar eguneko... Begiak ixten ditut eta dena jaten dut pentsamendu bakarrarekin: komunera joan eta bonba kaloriko hura ahotik botatzea amaitu bezain laster. Ez pentsa hori egiten gozatzen ez dudarik, berriz diot, gauza horiek garrantzitsu sentiarazten naute edo, hobeto esanda, boteretsu.

Gosaldu ostean, komunera joaten naiz nire leku gustukoenera joateko prestatzera: eskola. Askok gustatzen zait eskolara joatea, matematikako klaseak gozatzen ditut, lehen gorroto nituen, baina nire bizitza gorputzean sartzen dudana kalkulatzeko oinarritzen denetik, nire lagunak onenak direla sentitzen dut. Lagunei dagokienez, onenak edukitzearen zortea dut, nahiz eta behin eta berriz errepikatzen didaten ni "foka" bat bezala jartzeko, eta honek haiengandik aldentzea eragin du. Gizen ikusi nahi naute, baina ez dute lortuko. Komunean jarraitzen dut, orrazten naiz, botaka egiten dut, hortzak garbitzen ditut, koleta bat egiten dut daukadan ile apurrarekin eta 7 arropa-geruzekin janzten naiz. Azken boladan nire gorputzak ez bainau bero mantentzen, gurasoek diote gantz faltagatik dela, baina nik uste dut Euskal Herrian ipar poloan baino hotz handiagoa egiten duelako dela.

Komunetik irtetean, nire logelara joaten naiz motxila hartzera, baina, nire harridurarako, ez nituen igo, eta haietatik bera erori nintzen. Hain zuzen ere konortea galdu dut, ez da lehen aldia, baina oraingoan desberdina da...

Begiak irekitzen ditudanean, nirea ez den gela batean aurkitzen naiz, hormak urdinak ditu eta etengabe erizainak pasatzen dira, egitan ez naiz oso azkarra izan behar lekua ondorioztatzeko, ospitalean nago. Leku triste eta depresiboa, "Modern family" ren kapitulu guztiak amaitu izanak baino larritasun handiagoa ematen didana. Nire desira bakarra kartzela honetan askoz denbora gehiago ez egotea da. Hemen medikuek daramate kontrola, eta ez nik, horrek kriston ezinegona transmititzen dit.

Orduak aurrera doaz, arratsaldeko seiak aldera, logelan 4 pertsona daude: aita, ama, mediku bat eta erizain bat. Agurtzen, ukitzen, ikusarazten saiatzen naiz, baina alferrik da,

ikusezina ematen dut, ez dut ezer ulertzen... medikuak nire puzzlea deszifratzen duten hitz batzuk esaten ditu: zuen alaba koman dago. Bikain, nire bizitzaren kontrola nire eskuetan edukitzetik makina baten kabletan egotera pasa da. Barkatu hitz hauengatik, baina hau kakazaharra da, kristona!

Bitxia da dena behatzea eta guztiaren berri izatea inor konturatu gabe, beti irakurri nahi izan ditut gogoak jendeak nitaz zer pentsatzen duen jakiteko, baina benetan ez nuela horrela imajinatzen. Nire gelak Irungo erdigunea dirudi San Martzialetan, jendez beteta dago, nire lagunak, nire gurasoak, nire aitona-amonak, baita gau onean eta Gabonetan ikusi ohi ditudan osaba-izebak ere. Guztiak kezkatuta daudela dirudi, nigatik interesa azaltzen dute, esnatzea nahi dute, hitz batzuk errepikatzen dituzte: "Borrokatu, uste duzuna baino indartsuagoa zara". Aspaldian ez nintzen hain maitatua sentitzen, eta gezurretan ari naiz ez zaidala gustatzen esaten badut.

Orduak, egunak, asteak aurrera doaz, eta nik nire bihotz berrira konektatuta jarraitzen dut: makina bat. Ez dut gehiegikeriarik esaten, duela egun batzuk entzun nion medikuari, nire bihotza ahulegia zela bere kabuz lan egiteko esaten. Ez da entzuten dudana gauza bakarra, zainetan sartuta daukadan zundatik sartzen nautena ere entzuten dut. 1.000 kaloria inguruko "janaria" sartzen didate, oilasko bat ematen dut. Bi gauza horien artean ez dakit gehiago beldurtzen nauenik, nire bihotzak taupadarik ez egiteak edo taupadaka jarraitzeak eta hemendik beste 20 kg-rekin irteteak, azken finean, bi gauzek hilko lidakete, modu batez edo bestez.

Bakarrik geratu naiz amarekin logelan, negarrez dago, bere sufrimendua benetakoa da eta errudun sentitzen hasia naiz. Norbaiti hitz egiten ari dio indarra emateko eta bizia itzultzeko. Begietako malkoak gero eta ugariagoak dira, eta nire esnatzeko eta amak besarkatzeko gogoak gero eta handiagoak. Ama beti saiatu da aldi txar honetan lasai egoten, eta inoiz hain apurtuta ikustea imajinatuko nukeen. Nigana hurbildu eta eskua ematen dit, bere betiko lurrinaren usaina du, sentitzen dut. Belarrira hurbiltzen zait eta niretzat erabakigarriak diren hitz batzuk esaten dizkit: zu bizi bazara ni bizirik, eta bestela... ez zen beharrezkoa izan esaldia amaitzea, niri begiak ireki eta berekoikeria hutsez eman zidan emakumeari bizia kentzen ari nintzaiola konturatzeko. Egun hartan, dena aldatu zen. Eskerrik asko, ama.

Zunda eta makinekin lotutako ohe honetan hainbeste denbora eman ondoren, bizitzen jarraitzeko erabakia nirea zela konturatu nintzen, ni izan naiz poliki-poliki hil nauena, hiltzaile bat. Ni izan naiz irribarrea lapurtu didana, lapur bat. Ni izan naiz gezurra esan didana, gezurti hutsa. Ni izan naiz engainatu nauena, iruzurgile bat. Ni, ni eta a zer sorpresa, ni berriro, errudun bakarra.

Zuri, bizi gogoak eduki arrren, bizitza kendu didazula. Esaldi honekin, agur esan nahi dizut, espero dut zure presentzia berriro ez sentitzea, nire burua jolasteaz nekatu egin dela esan nahiko du, nire irribarrea berpiztu egin dela esan nahiko du, batez ere nire itzala ez dela heriotza izango esan nahiko du...Zoaz betiko Anorexia.

**Sara Vaquero Asensio**